

## 5. HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

### 5.1. Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeke baliabidea dugu. Eskola-jarduera hobetu nahi dugu, elkarbizitzaren ebaluazioa eta diagnostikoaren bidez. Konpromisoa hartzen dugu sistematikoki datuak jasotzeko, honako gai hauei buruz:

- a) Ikasleen arteko gatazkak. Liskarrak (zein leku eta unetan eta nolakoak), eskola-jazarpena (zenbat aldiz, sorburuak, tipologia, erabilitako bitartekoak...)
- b) Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak. Zenbat aldiz, zein taldetan, gatazkamota. Erreklamazio akademikoko izaera badu, jatorria aztertu.
- c) Gurasoek parte hartzen duten gatazkak. Zenbat aldiz eta zein motatakoak.

Halaber, honako hau egin nahi dugu:

- Arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatu (noiz, non. Adibidez: eguerdian, jantokian, garraioan).
- IPI IRATXE ikastetxearekin jardunbide egokien esperientziak partekatu.
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatu.
- Gure Elkarbizitza Plana aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu.
- Denon partaidetza aktiboa sustatu, batez ere ikasleena (adibidez: hilero ikasgelako ordezkariak eta zuzendaritza talde biltzea elkarbizitza hobetzeko proposamenak lantzeko).
- Elkarbizitza positiboa bultzatu: hiru hilabetez behin festa bat antolatu, ingurune ez-formal batean irakasleen eta ikasleen arteko harremana sustatzeko; irribarrea eta adeitasuna sustatzeko kanpainak antolatu; bitartekaritza eta hezkuntza konpromisoetan lagundu... Gatazkak konpontzeko tailerra gurasoen eskura egongo da.
- Konponketa-neurriak lehenetsi.
- Ikastetxeko elkarbizitza-araudia berrikusi.
- Gerta litezkeen indarkeria eta eskola-jazarpen kasuak antzemateko ikasle-talde bat sortu.
- Modu zuzenagoan lan egin Osasun Batzordearekin; Udaleko, eskualdeko eta abarreko osasunaren aurkako kontsumoen prebentziorako zerbitzuekin, etab.
- Elkar zaintzeko kultura garatu, izan ere, nor bere burua eta besteak zaintzeak, bien poztasuna eta aberastasuna dakartza.

Arrakasta akademikoa ez ezik, ikastetxeko giroa eta eskola-komunitateko kide guztien arrakasta pertsonala ere hobetu nahi dugu. Pertsona guztiak aintzat hartuak, entzunak eta erabakiak hartzean partaide izan daitezen nahi dugu.

## 5.2. Beste egitura batzuk

Behatokiaz gain, ikastetxe honetan elkarbizitzaren kudeaketarako lagungarri izango den beste egitura bat sortu da: **Elkarbizitza Batzordea**.

Elkarbizitza Batzordea eratu zen ikastetxeko Elkarbizitza Behatokian sorturiko erabakiak eta proposamenak garatzeko, eguneroko gatazken kudeaketaren esparruan. Bere funtzionamendua, antolaketa eta osaketa AJAn jasota daude.

Horrez gain, OOGren aurrean aurkeztutako erreklamazioak berrikusiko ditu eta zuzendariak elkarbizitzaren aurkako portaera kaltegarrien aurrean hartutako neurri zuzentzaileen inguruko erabakirik egokienei buruzko proposamenak egingo ditu. Erabaki horiek gehiengoz hartuko dira, eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

Batzordea zuzendariak, ikasketaburuak, bi irakaslek, bi aita edo amek eta bi ikaslek osatzen dute.

Hilean behin bilduko gara (bigarren asteazkenean), eta konpondu beharreko arazoren bat dagoenean.

Batzorde honetatik lan egingo da planteamendu zigortzailea gainditu eta, neurri prebentibo, aringarri eta zaharberritzaileen bidez, elkarbizitza positiboagoa lortzeko.

<sup>3</sup> EEPL legeak eskaintzen dituen bi aukeretako bat da eta eraginkorrena dela dirudi. Legeak berak eskatzen du osaketa proportzionala. Boto haztatuaren sisteman batzordea osatzen duten guraso, ikasle eta irakasleen botoen balioa OOGn edo Eskola Kontseiluan duten balio berekoa izan behar du. Ordezkapena ahalik eta txikiena izatea proposatzen da:aita edo ama bakarra, ikasle bat, eta irakasle bat; baina argi dago gehiago izan daitezkeela.